

JARDUERA: XAGUXATAR PARKEA

HARTZAILEAK: LEHEN HEZKUNTZA 3 eta 4 mailak.

DENBORA: 40 min.

HELBURUAK:

- Xaguxatarren ohiturak, elikadura, hibernazioa, ekolokalizazioa ezagutzea.
- Xaguxatarrek bere inguruan eta gizakiarengan dituen onurak ezagutzea eta baloratzea.
- Animaliarekiko errespetuzko jarrera bultzatzea.
- Izarraitzen bizi diren xaguxatar desberdinak ezagutzea.

EDUKIAK:

- Xaguxatarren bizi modua, berezitasunak.

METODOLOGIA:

- Bisitaldian, jarduerari hasiera emateko, hezitzaileak xaguxatarren berri emango die ikasleei eta parkeak dituen eremu desberdinak aprobetxatuko ditu animalia hauen berezitasunak azaltzeko.

GIDOIA:

- Ongi etorria.
- Umeei azaldu egingo den ekintza.

JARDUERA: XAGUXATAR PARKEA

Egia esan behar bada, jende askok beldurra edo nazka die xaguxatarrei. Aspalditik daramaten ospe txarra kendu ezinik dabilta. Horregatik, bere bizimodu ezezagun bezain harrigarriaren berri izango duzu, Azpeitiko parke honetan.

Esaten da saguitsuak hegalekin direla eta ez da horrela. Bai egunez eta gauez oso ondo ikusten dute eta ez daukate zer ikusirik saguekin. Ez dute argitasuna gustuko eta eguzkia oheratzean eta iluntasuna nagusitzen denean, bere eskutalekueetatik ateratzen dira handik eta hemendik ibiltzera, oso entzumen ona dute eta honi esker, **ekolokalizazioa** erabiltzen dute janaria topatzeko.



EKOLOKALIZAZIOA=
ondak bidali, objetuei jo eta entzumenari
esker, ondak jasotzen dituzte.

Naiz eta txoriak bezala hegan egin ez dute haiekin zer ikusirik.

Txikiak dira eta belarri handiak dituzte. Ugaztunak dira, hegan egiten duen ugaztun bakarra da, ilea dute eta jateko hortzak dituzte, arnasa hartzen dute bizitzeko, ez dira arrautzatik jaiotzen eta amaren sabeletik jaiotzen dira, jaio berritan amaren bularretik esnea hartzen dute, koxkortzen direnean, berriz, intsektuak jaten dituzte eta neguan **Hibernatzen** dute janaria ezin dutelako aurkitu. Horregatik udazkenean asko ehizatzen dute erreserbak izateko.

Koba zuloetan, ganbara eta zuhaitz zaharretan bizi dira.

Bere azazkalak bereziak dira ondo heltzeko zuhaitzetako enborrei. Adarretatik eta sabaietatik zintzilik ordu asko egoten dira.

Askok esaten duten bezala ez dira zikinak eta ez dituzte beste animaliak baino gaixotasun gehiago transmititzen.

Bakarrik 3 mota xaguxatarren jaten dute odola.

Izarraitz Babes Bereziko Eremua da eta bertan 4 xaguxatar espezie desberdin bizi dira (Rhino, Myo, Pleco, Auri). 4 hauekin batera, parkean jolastuz bere bizimoduaren berezitasunak ezagutuko ditugu.





INTSEKTUEN HOTELA (MUSeoko FatXadan dago)

Intsektu desberdin asko daude: euliak, kilkerak, tximeletak, erleak, inurriak, armiarmak...

- Ea hotelaren inguruan zenbat intsektu mota ezberdin ikusteko gai zareten!!

Intsektuak gehiegi ugaritzea ez da ona, izurriteak kaltegarriak direlako. Zeinek ekiditen ditu izurrite horiek?

Bidean zehar, hainbat xomorro topatuko dituzu zoruan marraztuta.

- Asmatu al duzu zein ez den intsektua? (3 hanka pare baino gehiago baldin baditu, ez da intsektua).

Gure entzumen onari esker, ekolokalizazioa erabiltzen dugu janaria topatzeko. Etxea garbitzeko erabiltzen ditugun robotak ez dauka begirik, ez du ikusten. Makina asko sortzeko naturatik kopiatzen dira. Robotaren sistema Xaguxatarrei kopiatutakoa da.

- Ekolokalizazioa= Xaguxatarrek sortzen duten soinuen oihartzunez baliatzen dira inguruan zer duten jakiteko.



JARDUERA: XAGUXATAR PARKEA

XAGUXATAR HORMA

Bertan zuloak binaka konektatuta daude. Batetik hitz eginda, bestetik entzun daiteke.

- Xaguxatarron antzera, kobazuloan lagun batekin “hitz egin” eta hura entzuteko aukera duzu rokodromoan.

Nola?



ENBOR BERTIKALEN BARATZA

Sokaz egindako armiarma sareak xaguxatarren antzera bertan zintzilikatzeko aukera ematen digu.



Hotzarekin batera, janaria topatzea zailagoa izaten da, eta jateko aukerarik ez dutenez, atsedena hartzen dute udaberria iritsi arte.

Kobazuloen sabaietan buruz behera igarotzen dute negua erdi lo. **Hibernazioa**, neguan goxo egoteko modua.

- Ea armiarma-sarean xaguxatarra bezala jartzen zaren.

LABERINTOA

Sail honetan hainbat zentzumenen bitartez jolastuko dugu.

- Laberintoan sartu eta ea irteera azkar topatzen duzun.

Adarretatik eta sabaietatik zintzilik ordu asko egoten gara, horregatik garrantzitsua da indarra edukitzea eta oreka mantentzen jakitea.

- Zure indarra frogatzeko aukera duzu rokodromoan eta mikadoan.

